

Abeceda, alfabeto bat bizitza modernoarentzat

Odile Cisneros

Erdialdeko Europako herrialdeetan sortu ziren “ismo” ugarien artean, Europako abangoardia nagusiak sortu ziren garai berean, gerren arteko sasoian, “poetismo” txekiarra nabarmentzen da: Pragan sortu zuten, 1923an, Vítězslav Nezval (1900-1958) poetak eta Karel Teige (1900-1951) artista grafiko, arkitekto eta arte-teorialariak. Mendebaldean nahiko ezezaguna bada ere –agian hizkuntzaren oztupoengatik-, azken urteotan berpiztu da poetismoa eta beste abangoardia txekiar batzuk ezagutzeko interesa.

Poetismoa Devětsil izeneko abangoardia eklektikoaren oinordeko gisa agertu zen; artista eta idazle txekiar talde batek 1920aren inguruan sortua, Devětsilen partaideen artean Teige, Jaroslav Seifert poeta eta Vladislav Vančura narratzailea zeuden. “Devětsil” hitzaren esanahi literala “bederatzi indar” da, baina sendatzeko ahalmena duen lore baten izena ere bada. 60 kide izatera iritsi zen artista-kolektibo horrek ez zuen zorrotz definitutako programarik; horren ordez, joera ugari batzen zituen, hala nola purismo frantziar eta errusiarra, konstruktibismoa eta dadaismoa. Poetismoa, neurri batean, eklektizismo horri erantzuteko sortu zen, eta baita Devětsilen artista batzuek ezarri zuten inperatibo sozial eta proletarioari erantzuteko ere; izan ere, eskari praktikoko horietatik urundu zen eta, bere izenak islatzen duen moduan, “bizitzaren poetizazio” erabatekoa aldarrikatzen du helburu bezala, modu ludiko eta epikureoan. Beste era batean esanda, bere lehenengo fasean, Devětsilek erabilgarritasun soziala zuen artea nabarmentzen zuen, artista klase-borrokarekin uztartuz; poetismoak, aldiz, bizitzaren alderdi sentsual, jori eta ludikoak azpimarratzen zituen, borroka sozialaren “seriotasun” berbera errebindikatuz alderdi horientzat ere. Modu espezifikoan lehenesten zituen alderdien artean, poesiaren eta pinturen arteko fusioa zegoen, Teigek sortutako “poema piktorkoetan” –poema bisualak, collage moduan hitzak eta irudiak nahasten zituztenak-; horrez gain, baina, ikuspegi bisual berri bat ere ekarri zion poesiari, bai irudi poetikoei dagokienez eta bai poesia-liburuaren diseinu grafikoari dagokionez. Fusio hori helburu zabalago baten zati zen, hots, bost zentzumenentzako poesia bat sortzeko helburuaren zati (poesia bisuala, ukimenezkoa, optofonetikoa eta usaimenezkoa), Teigek bere “Poesia bost zentzumenentzat” (1925) manifestuan adierazi zuen moduan; horrekin batera, asmoa zen artea biziarekin uztartzea. Artea ez zen gehiago artista profesionalen eremu eskusiboa, baizik eta guztien parte-hartze demokratikoa onartzen zuen jarduera bat. Beraz, poetismoa “biziaren arte bat zen, bizitzeko eta biziarekin gozatzeko arte bat”, Teigek “Poetismoa” (1924) manifestuan adierazi zuen bezala.

Poetismoak bultzatu zituen proiektuen artean, *Abeceda* liburua (1926) da berezkoena eta idiosinkratikoa: Nezvalek eta Teigek Milada (Milča) Mayerová dantzari eta koreografoarekin (1901-1977) izandako elkarlanaren emaitza. Liburuak Nezvalen poema bat du, 24 ahapaldikoa, gehienak 4 bertsokoak (badira 2 bertsoko batzuk), bakoitza alfabetoaren letra batek inspiratua. Proiektu grafikoaren egilea (bai azalaren eta orrialdeen diseinua eta bai tipografia) Karel Teige izan zen; Teigek fotomuntaketa bat sortu zuen, Mayerováren irudiekin, berau poema koreografikoki nola interpretatzen zuen erakutsiz –bi alderdi horiek geroago komentatuko ditut-.

Poema bera aurretik argitaratua zen, Nezvalen *Pantomima* bilduman (1924), baina liburu autonomo moduan argitaratzeko erabakia Mayerovák bultzatu zuen gehienbat; izan ere, berak interpretatu zuen poema koreografikoki, 1925ean, Nezvali eskainitako errezitaldi batean, eta bera ere arduratu zen argitalpena kudeatzeaz, bere aitona sortutako J.Otto argitaletxean. Liburu bakar hau poetismoaren ideal eta prozeduren sinbolo bilakatu zen ia.

Abeceda izenburua “abeze” bezala itzul daiteke euskerara; hitz horrek hitz txekiarraren anbigotasuna gordetzen du, zeren bi esanahi izan batitzake: “alfabetoa” eta “silabarioa”, edo irakurtzen irakasteko liburua. Alfabetoa ez zen kasualitatez aukeratu motibo poetiko bezala, eta, hortaz, horrek azterketa sakona eskatzen du. Liburuaren hitzaurrean, Nezvalek kontatzen du ezen, 1922an, poesia proletarioaren aldeko eta kontrako polemiken erdian, eduki poetiko berria erabiltzea erabaki zuela, inperatibo ideologikoei erantzuteko:

Erabaki nuen gai guztiak errefusatzera eta objektu poetiko abstraktuend aukeratzea –letra-, buruaren gimnasiarako ait-zakiatzat hartuta. Letraren formatik abiatuta, soinuik edo funtzioik abiatuta, azpikonstruktibatu bat sortu nuen asoziazioz, eta hortik jardun zuen nire fantasiak. Eraitza 24 [sic] poema izan ziren, oinarri konstruktibo hori errealitatearekin eta irudimenarekin uztartzearen bitartez sortuak. Autonomoak ziren, ez zuten inolako gairik eduki moduan, eta errealistak ere baziren, ohiko ideologia abstraktuaren ordez irudi konkretuen materialtasuna jartzen baitzen.

Aitormen horren bidez jakin dezakegu liburua nola eratu zen, baina baita mugimendu poetista osoa ere nola eratu zen, beraren testuinguru historikoari dagokionez –artearen funtzio sozial eta ideologikoaren inguruko polemika hori, Devětsilen artisten artekoa, zeinetatik Nezval argi eta garbi urruntzen baita, erabateko askatasun sortzailerara joz-. Hemen agertzen da abangoardia guztiak pizten dituen bulkada: poesia berriztatu nahi izatea, poesiatik tabula rasa egitea, funtsezko oinarri edo printzipioetatik abiatuta, hau da, alfabetotik; eta, aldi berean, bokazio didaktikoa: “silabario” bat sortzea, irakaskuntza-xedeekin.

Hiztegi berri horren sorrerak hizkuntzaren elementu materialak integratu nahi ditu (soinua, forma bisuala, eta abar), eta hortik abiatuta asoziazio lirikoak sortu, poesia konkretuaren moduko joerei aurrea hartuz. Hain zuzen ere, Abecedak asoziazio ikonikoak sortzen ditu (antzekotasun bisualekoak) alfabetoaren letra bakoitzarentzat, baina ez du hori bakarrik egiten. Adibide gisa, aipa dezagun poemaren lehenengo ahapaldia, A letran oinarritua:

A
Etxola soila deitu diezaiotela
Vltava, oi palmondoak! ekarri haren ekuatorea
Barraskiloak adarrak ateratzen ditu eguzkitara

Eta gizonak ez daki burua non jarri

Bere Poesiaren noranzko modernoak liburuan, Nezvalek komentatzen du ahapaldi horren atzean dagoen mekanismo poetikoa:

A letra teilatu batez nolabaiteko askatasunez alderatzeak sortzen du lehenengo bertsoa. Etxolen eta bizileku primitiboen arteko asoziazioaren bidez, gure irudimenak salto egiten du ekuatorera, hango beroa gure eskualde euritsuetara ekartzen saiatuz. Chtrčí-vystrčí (etxola lehorra) errimetatik sortzen da etxolen eta adarrak beren etxe eramangarrietatik ateratzen dituzten barraskiloen arteko lotura. Eta Vltava-hlavu errimak buru gainean teilaturik ez duen jende pobrearen irudia iradokitzen du.

Poemak islatzen du Roman Jakobson hizkuntzalariak hizkuntzaren “funtzio poetikoa” deitzen duena –Jakobson ere Devětsilen kideekin elkartu zen noizbait-, hau da, arreta beraren materialtasunera ekartzeko nahia, aldiberean mezua hizkuntzaren baitan azpimarratzen duen “funtzio komunikatibo” pragmatikoari kontrajarrita. Alfabetoaren “aitzakia” literaletik abiatzen diren teknika poetiko horiek erakusteaz gain, *Abeceda* poetismoaren balioen erakuslea ere bada –poemak bidaiak aipatzen ditu, bizi-poza, jarrera epikureoa biziaren aurrean, eta abangoardien desio sortzaile eta utopikoa-.

Adierazpen desberdinen integrazioa (ahokoak eta bisualak) Mayerová eta Teigek proiektuan izandako lankidetzan ere aurkitzen dugu, aipatutako hitzaurrean Nezvalek azaltzen duen bezala:

Milča Mayerová, dantzari buruz duen ikusmoldea helburu ideologikoetatik urrunduta dagoenez bere kasuan ere, bulkada moduan hartu zuen ziklo poetiko hau; oro har, beraren ezaugarriek mugezko absentzia berresten dute dantza ez-formalistan. Asmamen poetikoz, dantza-konposizio autonomoak antolatu zituen, poemen asmo tematiko eta formalean inspiratuta. Bera izan zen, hortaz, poemen bitarteko poetikoa, Karel Teige konposizio pikturikoen autorea izan bezala –ez zentzu tematikoan, bai ziklo eta alfabetoaren ikur tipografikoetan txertatutako motiboen zentzuan-.

Hemen, poetismoaren beste helburu bat ere adierazten da: bitartekotza-arte baten sorrera, nolabait esateko, bitarteko desberdinetan eta teknika desberdinez lan egiten duten artisten arteko lankidetzaren bidez.

Nezval eta Teigek *Abeceda* izandako lankidetzak sakon komentatu dute kritikariek, baina, esan dugun bezala, ez da ahaztu behar Mayerováren funtsezko rola; horrela nabarmentzen da Matthew Witkovskyren saiakeran: “*Staging Language: Milča Mayerová and the Czech Book Alphabet*”. Saiakera horretan, Witkovskyk xehetasunez aztertzen du Mayerováren parte-hartzea. Zenbait urtez Rudolf von La-

ban koreografoaren dizipulua izan ostean, Hanburgon, dantzaria Pragara itzuli zen, Labanen ideiak dibulgatzeko gogo handiz, alegia, gorputz-mugimenduak transkribatzeko sistema baten inguruko ideiak dibulgatzeko. Nezvalen poema “interpretatzeko” Mayerovák hartzen dituen poseek Labanen eragina adierazten dute beren posizio frontalean; halaber, bat datoz notazio-sistema alfabetoa balitz bezala ikus-
teko ideiarekin. Mayerovák ahaleginak egin zituen metodo hori frogatzeko, dantza-eskola bat eratzeari begira; era horretan, espazio berri bat ireki zuen emakume modernoarentzat, beraren nahi artistikoentzat eta profesionalentzat, eta, beraren erakargarritasunarekin batera, beraren boterea eta emantzipazioa ere azpimarratu zituen. Mayerovák poemaz egiten duen interpretazioari dagokionez, Witkovskyk dio ez duela poemaren irakurketa “literalik” egiten, haren poesiaren ilustrazio soila eginez, baizik eta askatasun handia erakusten duela. Batzuetan, beraren poseek bertsoen zentzua nabarmentzen dute, eta beste batzuetan zentzu horri kontrajartzen zaizkio. Hala, Mayerovák hizkuntza-sistema bezala aurkezten du Abeceda, zeren nolabaiteko adierazpen-askatasuna onartzen baitu sistemaren mugen baitan.

“Argazki-tipografiaren” diseinuan (Mayerováren poseen argazkiak integratzen dituen tipografia) ere, Teigek modu dialektikoan dihardu. Teigeren diseinu tipografikoa ez da beti bat etortzen Mayerováren mugimenduekin: batzuetan elkarren osagarri dira, eta beste batzuetan haiekin kontrastatzen dira, Teigeren joera konstruktibistaren eraginez. Esther Levingerren iritziz, Teigek uste zuen artearen autonomiak eta beraren helburu ludikoak ez zutela arau teknikoetatik askatzen. Hala, Abecedaren tipografiaren diseinuak konstruktibismotik eratorritako geometria zehatzean daude oinarrituta –Teigek horretaz teorizatu zuen bere “*Tipografia moderna*” saiakeran-. Bertan, tipografia berriari buruz zituen ideia batzuk antolatuta zituen; ideia horien barnean sartzen zen, besteak beste, “espazioaren eta tipografiaren konponketa harmoniatsua, lege objektibo eta optikoekin bat etorritik; diseinu argi eta irakurteraza eta antolaketa geometrikoa”, eta, halaber, “aurkikuntza teknologiko berri guztiek eskaintzen dituzten aukera guztien erabilera (linotipia, emulsiio-inprimaketa, fotokonposizioa), irudia eta letra “tipofoto” batean konbinatuz”. Teigeren diseinuan, hitzek ere sistema optiko baten antzera funtzionatzen dute –tipografiak rol ikonikoak jokatzeko du-, non sinboloak islatutako objektuaren antza baitu. Hala, adibidez, Witkovskyk dion bezala, Teigek B letraren linea bertikala bere kurbetatik aldentzen du, honela goitik ikusita Nezvalen testuak aipatzen duen bular parearen antza harturik. Hemen, Mayerováren irudiak dimentsio erotikorik hori ezeztatzen du, bere anatomiaren xehetasun hori nabarmentzen ez duen pose batez agertzen baita.

Lankidetzaren artistiko bezala, poetismoaren ideien manifestu bezala, eta abangoardien ideien dokumentu orokor bezala, Abecedek leku berdingabea hartzen du. Agerian uzten du artista bakoitzaren eta beraren bitartekoaren ikuspegi eta berezitasunak, hau da, konposizio poetiko, koreografiko eta tipografikoak, elkarren osagarri izaten direla batzuetan, beste batzuetan kontrastatu egiten direla, baina betiere elkarrizketa eratzen dutela elkarren artean, alfabeto eredu bat sortuz –eredu eta ikasgai utopikoa bizitza modernoarentzat-.

Mexikon jaioa, Odile Cisneros letraren doktoratu zen New Yorkeko Unibertsitatean, 2003an, Latinoamerikako abangoardiei buruzko tesi batez. Itzultzailea eta kritikaria da, saiakerak argitaratu ditu eta zenbait poeta moderno eta garaikideren obra itzuli du, hala nola Jaroslav Seifert, Vítězslav Nezval, Ramón Gómez de la Serna, Haroldo de Campos eta Régis Bonvicinorena. Gaur egun, irakaslea da Albertako Unibertsitatean, Edmontonen, Kanadan.